XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3479

130/2011 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, zeinen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011. urterako aurrekontuko 9311 Programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) eta 9211 Programan (Espainiako Sektore Publikoarekin finantza harremanak) diru-sarrerak lortu direla-eta, 7111 Programan (Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena) eta 5411 Programan (Nekazaritza-eta Arrantza-Ikerketa eta –Garapena) 86.601,69 euroko kredituak gaitzen baitira.

FEGA-FEAGA Erakunde Ordaintzailearen kontzeptuan 14.299,69 euroko diru-sarrera gehigarriak lortu dira, zertarako eta, premiarik gehien duten pertsonen artean elikagaiak banatzeko.

72.302,00 euroko diru-sarrera gehigarriak lortu dira, halaber, Ingurumen, Landa- eta Itsas-Ingurunearen Ministeriorik jasotakoak, zertarako eta, «Nekazaritza- eta arrantza-arloetako baliokateak optimizatzea: Bizi-zikloaren analisia eta karbonoaren aztarna» proiektu berriztatzailea finantzatzeko.

Hortaz, aipatutako kredituak gaitzeko eskatu du Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak.

Horregatik, kredituok gaitu egingo dira, irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoari jarraituz gaitu ere; dekretu horren bidez, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartu zen.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7111	454.99	14.299,69

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.08	14.299,69

Premiarik gehien duten pertsonen artean elikagaiak banatzeko jarduerak finantzatzeko erabiliko dira fondoak.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
5411	414.00	72.302,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	72.302,00

«Nekazaritza- eta arrantza-arloetako balore-kateak optimizatzea: Bizi-zikloaren analisia eta karbonoaren aztarna» proiektu berriztatzailea finantzatzeko erabiliko dira fondoak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.